

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETH), 2014KO EKAINA

Euskal AEko hotel-establezimenduetako bidaiari-sarrerak %6,4 gehitu ziren 2014ko ekainean

Gaualdiak %8,5 gehitu dira aurreko urteko hil beraren aldean

2014ko ekainean, 226.899 bidaiari-sarrera erregistratu ziren Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino 13.657 gehiago, %6,4ko gehikuntza, Eustaten datuen arabera. Araban %10,6 gehitu dira bidaiari-sarrerak, %12,8 Gipuzkoan. Bizkaian aldaketarik ez (%0,0).

Gaualdiak, 2014ko ekainean, 428.458; aurreko urtekoan baino 33.479, %8,5, gehiago. Gaualdiak urte artean %6,0 gehitu dira Araban, %10,6 Gipuzkoan, %7,2 Bizkaian.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Ekaina 2014

	Gaualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)			
	2014/06	m/m-12 (%)	2014/06	m/m-12 (%)	2014/06	2013/06	plazaka		gelaka	
							2014/06	p.p.*	2014/06	p.p.*
EUSKAL AE	428.458	8,5	226.899	6,4	1,89	1,85	50,7	4,5	62,7	5,8
Estatukoak	250.249	9,9	133.870	6,0	1,87	1,80	-	-	-	-
Atzeritarrak	178.209	6,5	93.029	7,0	1,92	1,92	-	-	-	-
ARABA/ÁLAVA	55.152	6,0	31.535	10,6	1,75	1,83	40,5	1,9	49,7	1,4
Estatukoak	39.837	8,9	22.571	10,5	1,76	1,79	-	-	-	-
Atzeritarrak	15.315	-0,9	8.964	10,8	1,71	1,91	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	39.988	4,1	22.895	17,6	1,75	1,97	42,4	0,7	54,1	-0,2
BIZKAIA	192.716	7,2	101.967	0,0	1,89	1,76	49,4	5,2	64,4	8,3
Estatukoak	119.599	12,1	62.584	-0,5	1,91	1,70	-	-	-	-
Atzeritarrak	73.117	0,2	39.383	1,0	1,86	1,87	-	-	-	-
Bilbao	123.478	8,9	64.800	3,9	1,91	1,82	54,1	5,2	70,9	8,2
GIPUZKOA	180.590	10,6	93.397	12,8	1,93	1,97	56,6	4,7	65,9	4,3
Estatukoak	90.813	7,6	48.715	13,3	1,86	1,96	-	-	-	-
Atzeritarrak	89.777	13,9	44.682	12,2	2,01	1,98	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	108.125	11,4	54.147	10,8	2,00	1,99	70,5	6,3	80,9	4,7

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (ETH)


Estatuko bidaiariak %6,0 gehitu dira aurreko urteko ekainaren aldean eta atzeritarrak %7,0. Araban atzeritarrak %10,8 gehitu dira eta estatukoak %10,5. Bizkaian atzeritarrak %1,0 gehitu dira eta estatukoak %0,5 gutxitu. Gipuzkoan atzeritarrak %12,2 gehitu dira eta estatukoak %13,3.

Batez besteko egonaldia, 1,89 egun, aurreko urteko ekainean 1,85 izan zelarik. Araban 2013ko ekaineko 1,83 egunetik aurtengo 1,75era laburtu da; Bizkaian 1,76tik 1,89ra luzatu; Gipuzkoan 1,97tik 1,93ra laburtu.

Plazakako betetze-maila ehuneko 4,5 puntuz handitu da Euskal AE osoan, 2013ko ekaineko %46,2tik aurtengo %50,7ra. Araban ehuneko 1,9 puntuz gehitu da, 2013ko ekaineko %38,6tik

aurtengo %40,5era. Bizkaian ehuneko 5,2 puntuz gehitu da, 2013ko ekaineko %44,2tik aurtengo %49,4ra. Gipuzkoan ehuneko 4,7 puntuz gehitu da, 2013ko ekaineko %51,9tik aurtengo %56,6ra. Gelakako betetze-maila ehuneko 5,8 puntuz gehitu da Euskal AE osoan; okupazioa, %62,7. Araban ehuneko 1,4 puntuz gehitu da, %49,7ra; Bizkaian 8,3z, %64,4ra; Gipuzkoan 4,3z, %65,9ra.

Euskal AEko hotel establezimenduen okupazio-mailaren eboluzioa lurralde historikoaren arabera (%)



Hotel-okupaziorik handienak ekainean Donostian (%70,5), Gipuzkoako kostaldean (%54,6) eta Bilbon (%54,1).

Asteko eguna aintzat hartuta, 2014ko ekainean okupaziorik handiena (%61,8) aste-bukaeretan; %46,6 lanegunetan.

2013ko ekainaren aldean langile okupatuak %3,7z gutxitu dira aurtengoan.

Landa-ostatuetak sarrerak %11,8 gehitu dira ekainean eta gualdiak %23,8

Euskal AEko landa-establezimenduetan ekainean 25.130 gualdi erregistratu ziren, aurreko urteko hil beraren aldean %23,8 gehiago. Araban %6,6ko jaitsiera; Bizkaian %22ko gehikuntza, Gipuzkoan %34,5ekoa.

Plazakako betetze-maila, %20,8, ehuneko 4,4 puntu gehiago 2013ko ekainean baino. Araban ehuneko 0,1 puntu gehiago, betetze-maila %13,1. Bizkaian betetze-maila %18,2, ehuneko 3,4 puntu gehiago 2013ko ekainaren aldean eta Gipuzkoan 6,9 puntu gehiago, %25,9.

Euskal AEko landa-ostatueta 10.669 bidaiari-sarrera erregistratu ziren aurtengo ekainean, %11,8 gehiago aurreko urteko hil beraren aldean. Araban %2,2ko gehikuntza sarreretan, Bizkaian %16,0, Gipuzkoan %12,9.

1.700 atzerritar-sarrera izan genituen, %-59,3 aurreko urtekoen aldean; sarrera guztien %15,9. Estatuko bidaiarien sarrerak %5,8 gehitu ziren.

Batez besteko egonaldia, 2,36 egun aurtengo ekainean, lehengo urtean baino luzeagoa.

2. taula.- Euskal AEko landa-establezimenduetako gualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Ekaina 2014

	Gualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2014/06	m/m-12 (%)	2014/06	m/m-12 (%)	2014/06	2013/06	2014/06	p.p.*
EUSKAL AE	25.130	23,8	10.669	11,8	2,36	2,13	20,8	4,4
ARABA/ÁLAVA	3.348	-6,6	1.839	2,2	1,82	1,99	13,1	0,1
BIZKAIA	6.739	22,0	3.109	16,0	2,17	2,06	18,2	3,4
GIPUZKOA	15.043	34,5	5.721	12,9	2,63	2,21	25,9	6,9

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (ETH)

Bizkaian, gelakako betetze-maila Makina-erremintaren bi urtekoan, %78,1

Bizkaian, Makina-erremintaren bi urtekoan, bidaiari-sarrerak 21.676 izan ziren. Sarrerok 2014ko ekainaren 2tik 7ra arte (6 gau). Aldi horretan, 42.357 gualdi Bizkai osoan eta gelakako betetze-maila %78,1. Bilboko metropolialdean (Bilbo aparte), betetze-maila, %89,2.

Araban, gelakako betetze-maila Azkena Rock Festivala ari zela, %60,2

Araban, bidaiari-sarrerak 2014ko Azkena Rock Festivala ari zela, 2.727. Sarrerok 2014ko ekainaren 20 eta 21ean (2 gau). Aldi horretan, 4.624 gualdi Araba osoan eta gelakako betetze-maila %60,2. Gasteizen gelakako betetze-maila, %67,2.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

ETH-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

ETH-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua